

Denbora-


1 Ezberdintasunak

Futbolzale amorratua da Unai, eta, nola ez, futbolari buruzko marrakia egin du. Zazpi aldaketa egin dizkiogu marrakari. Zein?



2 Giltzak

Autoko bi giltza ditu Albertok poltsikoan. Multzo honetako zein bi giltzak zabaltzen dute autoa?




3 Aurkitu irudian

Haurrak iratzartzeko, kanpai txikiak erabiltzen dituzte udalekuetan. Hiru kanpai pare berdinak dira. Aurkitu!

- pasak

5 Osatu irudia

Aitziber ez da batere abila koloretako margoekin. Erdizka dagoen irudia osatzeko gai al zara?



4 Aurkitu hitz zuzena

Udarako bidali dizkieten eskolako lanak egiten hasi da Amaiur. Hainbat hitz nola idazten diren ez daki, ordea. Lagunduko al diozu?

Erantzunak: 2.-1 eta 6. 4.-Oreka, haustele, ospetsu, ziurtasun eta neskazahar.


Jolasa

Fruten ibilbidea

Oso erraza da edozer gauza egitea bi eskuak erabilia. Eta eskuak bizkarrera lotzen baditugu? Fruta jateko gai izango al ginateke, esaterako?



1 Zergatik ez duzu festa freskagarri bat prestatzen eguraldi ona egiten duen egun batean? Joan amarekin fruta dendara, eta erosi askotariko fruta: sagarrak, bananak, gereziak, marrubiak, udareak... Deitu lagun guztiei, eta jarri hitzordual!



2 Frutekin ibilbide berezia prestatzea da hurrengo pausoa. Garbitu ongi-ongi fruta guztia. Ondoren, ezarri fruta batzuk sokatik zintzilik, beste batzuk urez beteriko ontzi batean, beste batzuk apal baten gainean... Hots, hainbat modu eta ontzitan jarri behar dira fruta aleak.



3 Osatu bi talde. Frutekin prestatu dugun ibilbidea egin beharko du talde bakoitzak. Fruta jateko, ahoa bakarrik erabili ahal izango dute jokalariek; ezin da eskurik erabili frutari eusteko!

4 Fruta gehien jaten duen taldea da irabazlea.